



Nerea San Martin - Angela Paniego

Aixerrota BHI, 14-15

# Aurkibidea

<i>J. K. Rowling</i> .....	3
<i>Harry Potter eta sorgin-harria</i>	
<i>Sarrera</i> .....	4
<i>Kokapena</i> .....	5
<i>Gaia</i> .....	6
<i>Argumentua</i> .....	6
<i>Pertsonaiak</i> .....	7
<i>Istorioa</i> .....	9
<i>Egituraketa</i> .....	10
<i>Baliabideak</i> .....	11
<i>Iritzia</i> .....	12
<i>Bibliografia eta webgrafia</i> .....	13

# J. K. Rowling

Joanne Rowling idazle ingelesa da, J. K. Rowling goitizenaz ezagutua, bere liburuak sinatzeko erabiltzen duen izena da eta. 1965eko uztailaren 31an jaio zen Yaten, Gloucestershiren, eta hainbat aldiz aldatu zen bizilekuz bere gaztaroan zehar. Exeterko unibertsitatean ikasi zuen filologia frantsesa eta klasikoa eta ikasketak amaitu zituenean Londresera joan zen, beste lan batzuen artean Amnistia Internazionalen lan egiteko.

1990ean Manchesterretik Londresera zioan trenan itxaroten zuen bitartean, atzerapenarekin zetorren eta, azti eta sorginen eskola bati buruzko ideia bururatu zitzaion eta Harry Potter liburu famatua idazten hasi zen. Aipatu berri dugun liburua idazten zebilen bitartean Joanneren ama hil zen, eta haren heriotzak izugarritzko eragina izan zuen idazlearen lehenengo eleberrian, Harry Potter protagonistaren gurasoen heriotzarenganako sentimenduak azpimarratzen ditu eta.

Londresen bizi ostean, Portugalera joan zen bizitzera, ingeles irakasle bezala lan egiteko eta han Jorge Arantes kazetari portugaldarrekin ezkondu zen. 1993ko uztailean bere alaba Jessica jaio zen, eta hilabete batzuk geroago bere senarrengandik dibortziatu ondoren, bere arrebarekin bizitzera joan zen.

1995ean, langabezian zegoen bitartean, Rowling-ek bere lehenengo eleberria bukatu zuen –Harry Potter eta Sorgin Harria–. Bere lehenengo liburua argitaratu bezain laster, haren bizitza aldatu eta munduko idazlerik ospetsuenetariko bat bihurtu zen. Gaur egun Neil Michael Murrayekin ezkondua dago eta berarekin beste bi seme dauzka: Mackenzie eta David. Ospe handiko idazlea da eta munduko pertsonarik aberatsenetarikoa baita ere.

Haren liburuen artean aurkitu daitezke:

- *Harry Potter eta Sorgin Harria* (1997)
- *Harry Potter eta Sekretuen Ganbera* (1998)
- *Harry Potter eta Azkabango presoak* (1999)
- *Harry Potter eta Suaren Kopa* (2000)
- *Fantastic Beasts and Where to Find Them* (2001)
- *Quidditch Through the Ages* (2001)
- *Harry Potter eta Fenixaren Ordena* (2003)
- *Harry Potter eta Odol Nahasiko Printzea* (2006)
- *Harry Potter eta Herioaren erlikiak* (2007)
- *Eserleku hutsa* (2012)
- *The Cuckoo's Calling* (2013)
- *The Silkworm* (2014)



# Sarrera

J. K. Rowling idazle britainiarrak 1997an idatzi zuen eleberri honetan misterioa eta abenturak dira nagusi, alegiazko toki eta jende artean. 1997ko ekainaren 30ean argitaratu zen, hiru urte geroago liburuaren filma egin zen eta filma egin zen urte berean euskaratu zuen Iñaki Mendigurenek eleberria.

Harry Potter eta Sorgin Harria Harry Potter saileko lehenengo liburua da eta Harry Potter mutil umezurtzaren istorioa kontatzen du. Mutikoa bere osaba-izebaren etxean bizi da, bere lehengusu Dudleyekin. Berak jakin ez arren, bere osaba-izebak betidanik ezkutatu dioten gauza da eta, botere miresgarriak ditu. Egun batean magia eskola batera joateko aukera iristen zaio, eskola hartatik gutun bat heltzerakoan.

Eskola hartako abenturetan oinarritzen da nobela, Harry azti gaztearen eta haren lagunen abenturetan. Alegiazko, abenturazko eta misteriozko eleberria dela esan dezakegu aztiak, abenturak, etab. batzen dituelako ingurune ezezagun eta fantasiakoan, Hogwarts azti eta sorgin eskolan. Aldi berean, istorioa kontaturik dagoen estilo sinplea edozein irakurle harrapatzeko gai den eleberria bihurtzen du.

# Kokapena

Liburu hau, gehien bat Hogwarts magia eskolan kokatzen da, idazleak asmatutako azti eta sorginentzako eskola.



Hogwartsera Erresuma Batuko ume eta nerabeak doaz magiaren erabilera, magiari buruzko historia eta beste hainbat gauza ikastera. Lantzen dituzten irakasgaien adibide bezala, sorginkeri, edabe, transformazio edo arte ilunen kontrako irakasgaiak dira aipagarriak. Eskola Eskoziako muino batean kokatuta dago eta bakarrik izaki magikoentzat ikusgarria da, “muggle”-engandik babesteko –muggleak magia gabeko pertsonak dira istorio honetan–. Zazpi solairutan banatuta dago, eta altuera handiko hainbat dorrez hornituta. Barruan ikasgelak eta neska-mutilen logeak gain, jantoki erraldoi bat, liburutegia eta beste hainbat gela misterioitsu eta magiko aurkitu daitezke. Kanpoan, aldiz, Quidditch zelaia –azti eta sorginen artean, magia gabeko pertsonon artean futbola den bezain ospetsua den kirola da–, berotegi pare bat, aintzira handi bat eta, bertako jendeak “Baso debekatua” deitzen duen basoa daude.

Hogwarts eskolatik kanpo garatzen den istorioa, Erresuma Batuan gauzatzen da. Eleberriaren hasieran, adibidez, magiatik aldentuta dagoenez badakigu muggleen artean gertatzen dela, baina Erresuma Batuko zehaztugabeko kale eta herrietan.

Istorioaren garaia ez da zehazten, badakigu Harry Potter gaztearen adina baina ez da aipatzen urte zehatz bat. Liburuaren hasiera udako oporretan gauzatzen dela esan daiteke, Harry eta bere lehengusuak eskolarik ez daukatelako eta hurrengo urterako hautaturiko ikastetxeak aipatzen direlako. Hori kontuan harturik, eta jakinik liburuak Hogwartseko ikastetxearen ikasturte amaierarekin bukatzen dela, pentsa dezakegu Harry Potterren istorio honek 11 hilabete inguruko iraupena duela, uztailetik maiatza edota ekaina arte.

# *Gaia*

Eleberriaren gai nagusia zoriontasunaren bilaketa da, istorioaren hasieratik agertzen dena. Hasieran Harryren gurasoen heriotza aipatzen da, eta hasieratik ikus daiteke umearen inguruko zorigaitza, hau da, zoriontasun eza. Horrez gain, istorio osoa Voldemorten handinahiak eragiten du, eta horregatik ikus dezakegu J. K. Rowlingek erakutsi nahi digula amodioaren garrantzia irakurleoi. Hau da, alegiazko istorio bat erabiliz, zoriontasunaren bilaketaren eta amodioaren garrantzia azaltzen du, ambizioaren eta gaitzaren kontra jotzeko.

# *Argumentua*

Harry Potter umezurtz geratu eta bere osaba-izeba eta bere lehengusu gogaikarriekin bizi da. Harry triste eta bakarrik bizi da etxe hartan, egun batean bere bizitza guztiz aldatuko duen gutun bat jaso arte. Gutun horrek Hogwarts magia eta aztikeria ikastetxean datorren ikasturterako onartu dutela dio. Handik aurrera Harryren bizitza eta zortea guztiz aldatuko da. Hogwartsen sorginkeriak, magiazko trikimailuak eta arte ilunen kontrako defentsa ikasiko du, beste hainbat gauzaren artean. Quidditcheko txapeldun bihurtuko da, lagun asko egingo ditu eta bere patua betetzeko bidea hartuko du. Horrela, Harry azti on eta ospetsua izatera helduko da.

# Pertsonaiak

**Harry Potter.** Protagonista da. Txikia zela, Voldemort azti gaiztoak bere gurasoak hil zituen, baina bera ezin izan zuenez hil, botere izugarriak eman zizkion nahigabe. Harry izan zen Voldemortek hil ezin izan zuen bakarra. Ondorioz, bere izeba-osabekin bizi da, baina oso tratu txarra ematen diote. Bere lagun onenak Ron eta Hermione dira, Hogwarts azti eta sorgin eskolan ezagututakoak eta, bera bezala, Gryffindor etxeakoak dira.

Harry bere adinerako txiki, argal eta betaurrekodun mutila da, ile beltz eta bihurriarekin. Tximista formako orbain bat du bekokian, txikia zela Voldemortek egindakoa eta bera hurbiltzen denean izugarrizko mina egiten diona.

Gehien desira duena baketsu bizitzea da, bera maite duen familia batekin, bera gurasorik gabe hazi delako. Hori Oestedeko ispiluan –Hogwartsen aurkitzen duen ispilu magikoa– ikusten da, bere familiarekin ikusten duenean bere burua. Maite duena defendatzeko bere burua arriskuan jartzen du behin eta berriro; fideltasun harrigarria erakutsiz. Oso mutiko ezkorra da, beti gauza txarrak gertatuko zaizkiola pentsatzen baitu, eta oso azkar haserretzen da, gehien bat norbaitek bere lagunaren edo familiaren kontrako zer edo zer esaten duenean. Magia gaiei buruzko interes handia du eta horrek, batzuetan, arazoetan sartzea dakar Harryrentzat.

**Ron Weasley.** Pertsonaia garrantzitsuenetariko bat da. Familia xume bateko anai gazteena da, bost anai-arreben artean, eta familiako beste kideekin etxe zahar batean bizi da.

Weasley guztiak bezala ilegorria da. Mutiko altu, argal eta oreztaduna da, esku eta oin handiak dituena. Begi urdinak ditu eta sudur luzea. Harry bezala mutiko leiala da, maite duen pertsonengatik edozer egingo lukeena. Dibertigarria, sarkastikoa eta apur bat erretxina da, baina gauza guztien gainetik lagun oso ona. Xakea eta quidditcha gustuko ditu, jatearekin batera. Hainbeste anaien artean txikiena denez bere anaien arropa eta eskola material zaharra erabiltzera behartuta dago eta horrek guztiz amorrarazten du.

**Hermione Granger** Harryren lagun minetako bat da eta pertsonaia oso garrantzitsua eleberrian. Sorgina izan arren “muggle” familia batean jaio zen, magia gabeko familian, baina horrek ez dio eragozpenik jartzen sorgin bikaina izateko bidea hartzerakoan.

Neska azkar eta perfekzionista da, klaseko lehena beti. Aldi berean bidezko pertsona da, eta jatorra, besteen arazoez kezkatzen dena eta behar dutenei laguntza eskaintzen diona. Batzuetan bere izaera suminkorra izan daiteke, edozein

galderarentzako erantzuna daukalako eta beti ikasketetan pentsatzen dabilelako, baina lagun ona da.

**Lord Voldemort.** Antagonista da eta azti oso ezaguna da azti eta sorginen artean. Izugarria da berarenganako daukaten beldurra eta horregatik ez dute inoiz bere izena esaten. Bera hiltzaile sutsua da, eta zoritzarrez, jarraitzaile ugari ditu. Gaitza ezartzeko armada bat sortu zuen, Britainia Handian biolentziaz jokatu.

Harryren gurasoen hiltzailea da eta Harry hiltzera zihoanean bota zion madarikazioa beregana bueltatu eta guztiz indargabetu zen, Harryri nahigabe bere botereen zati bat emanaz eta Harry azti indartsua eginez. Momentu hartatik eta liburu osoan zehar gorputz gabeko gizakia da, eta adarbakoitzen odola eta besteen gorputzetan sartzea behar du bizirik irauteko –Quirrell irakaslearen gorputza erabiltzen du horretarako–.

Azti gaizto eta indartsua da, anbizio handikoa. Edozeren gainetik boterea edukitzea da berak nahi duena, eta, bide batez, Harryren heriotza, hori delako bere indar eta botere guztiak berreskuratzeko bide bakarra.

**Albus Dumbledore** irakaslea, transformazio eta eraldaketen irakaslea izan zen, orain Hogwarts magia eskolako zuzendaria da, eta azti eta sorgin askoren ustez eskolak izan duen zuzendaririk onena. Dumbledore gaztea zela galdu zituen gurasoak eta arreba, eta horrek beregan eragin handia ekarri zuen.

Bere garaiko azti boteretsuena bezala da ezagutua, Gellert Grindelwald garaitzeagatik, herensugeen odolaren hamabi erabilerak aurkitzeagatik eta liburuan aipatutako Nicolas Flamelerekin alkimian egindako lanagatik da ospetsua. Voldemort azti iluna beldurtzen duen bakarra da, eta berak sortzen du Lord Voldemorten agerpenaren aurkako erresistentzia. Harry eta haren lagunak laguntzen ditu, era zuzenean izan ez arren, Harryri ikusezintasun kapa utziz adibidez.

**Rubeus Hagrid** Hogwarts eskolako zaindaria da. Dumbledore zuzendaria asko miresten du eta ez dio inori berari buruzko gauza txarrak esatea onartzen. Harryren adiskidea da, bere gurasoak ezagutzen baitzuen eta haien heriotzaren ostean Harryrenganako maitasun handia sortu zitzaion. Gizon leiala, lagunkoa eta bihozbera da, erraz negar egiten duena.

Erdi gizakia eta erdi erraldoia da, gizon arrunt bat baino bi aldiz altuagoa eta bost aldiz zabalago baita. Ile beltz, luze eta ugaria du eta aurpegia ia guztiz estaltzen dion bizarra. Begi beltz eta distiratsuak ditu, hainbeste ilearekin ia ikusezinak direnak.



# Istoriaoa

Harryren gurasoak berarentzat ezezaguna den moduan hil dira eta bere osaba Vernon, izeba Petunia eta Dudley lehengusu gogaikarriarekin bizi da. Haiek Harryren gurasoen istorioa eta bere izaera magikoa ezkutatuan daukate, magia eta azti eta sorginak gorroto dituzte eta. 1991ko udako egun batean gutun arraro bat heltzen da Harryrentzat, Hogwarts izeneko eskola batetik. Haren osaba higuingarriak Harryri irakurtzeko denbora eman gabe hartu eta sutara botatzen du. Behin eta berriz gertaera bera errepikatuz, gutunak gero eta gehiago heltzen baitira. Horri aurre egiteko eta Harryri mundu magikotik aldentzeko, osaba Vernonek irla batean eskutatzea erabakitzen du. Irlan igarotako lehenengo gauean gizon handi eta iletu bat agertzen da Harryren bila. Gizon hori Hagrid da, Hogwartseko jagolea, eta Harryri gutuna eskuan ematera dator. Mutikoari aztia dela kontatzen dio, bere gurasoak bezala, eta Harryri magia ikastetxera eramatea etorri dela azaltzen dio. Harry berarekin eskolarako materialaren bila doa; ontza, barita, pertza... Erosketak egiten dituzten bitartean Hagridek Harryri haibat gauza kontatzen dizkio, gurasoei buruzko gauzak, bere gurasoak hil zituen aztiari, Voldemorti, buruzko gauzak, etab.

Ikasturtea hastera doanean, Harry Londresera abiatzen da Hogwartsera doan trena hartzera. Geltokian, trena irteten den nasa aurkitu ezinik, Weasley familia ezagutzen du –Harryk lotura handia izango du Weasleyekin– eta haiek laguntzen diote nasa aurkitzen. Trenera sartu bezain laster Ronekin solasean hasten da, Weasley familiako seme gazteenarekin, eta lagun onak bihurtzen dira. Hogwartseko bidean Ronez gain, Hermione Granger ezagutzen du, magia gabeko familia batetik etorritako sorgin azkarra, eta beste hainbeste eskolakide. Ikastetxera iritsi bezain laster, ikasleak etxeetan sailkatzen dira; Gryffindor, Slytherin, Ravenclaw eta Hufflepuff. Harry Gryffindoren sartzen dute, Ron eta Hermionekin batera. Saikapenak ikasturtearen hasiera zehazten du eta magia eskolako klaseak hasten dira. Klaseak hasita, Harry Ronen lagun mina bihurtzen da eta biak Draco Malfoy Slytheringo mutiko gogaikarriaren kontra jotzen dute. Haien ikasturtean zehar hainbat abentura bizitzen dituzte; hala nola, hiru buruko txakur erraldoi batekin topo egitea, Harryk quidditch taldean jokatzeko, gauean zehar eskolan zehar ibiltzea, ispilu magiko bat aurkitzen dute edo Hermioni trol batengandik onik ateratzea. Aipatutako azken gertaera horrek Harry, Ron eta Hermione lagun oso onak bihurtzea dakar eta hiruron artean sorgin harriaren misterioa argitzeko batzen dira.

Snape maisua sorgin harria edozein metal urre bihurtu edo bizitza luzatzeko elixirra sortu dezakeen harria, Hogwartsen ezkutatuta zegoena lapurtuko duela uste dute mutikoek, hiru lagunak zazpigarren solairura abiatzen dira gauez, han harria gordeta dagoen tokirako pasabidea baitago. Hiru buruko txakurra lokartu eta harriaren gordelekurantz abiatzen dira. Sorgin harrira ailegatzeko hainbat proba pasatu behar dituzte; hala nola, itotzen duten belar magikotik ihes egitea, giltza hegalari bat harrapatzea, xake joko arriskutsu bat irabaztea eta asmakizun arriskutsu bat asmatzea. Harry bakarrik irizten da sorgin harria gordeta dagoen lekura, bere lagunak bidean geratzen dira eta. Han Quirrell indar ilunen aurkako maisuarekin topatzen du, benetan bera da eta harria lapurtu nahi duena eta ez Snape haiek pentsatzen zuten bezala. Quirrell Voldemort azti ilunaren esanetan harria lapurtzeko nahian dago eta harria

eskuratzeko edozein gauza egiteko prest dago. Voldemorten fantasma Quirrelen turbante azpian ezkutatuta dago eta, Harry eta beraren arteko borrokaren ondoren, Harry Hogwartseko erizaindegian esnatzen da. Dumbledore jaunak, ikastetxeko zuzendariak, gertatutakoa azaltzen dio eta sorgin harria hautsi dutela kontatzen dio.

Ikasturteko azken egunerako Harry hobeto sentitzen denean, beste ikaskideekin etxeen txapelketaren festara doa. Slytherinen garaipena ziurtatuta dagoela suposatzen da, haien apaingarriekin jantoki osoan zehar, baina Dumbledore zuzendaria Harryk eta bere lagunek egindakoa eskertu eta haien etxearentzako hainbat puntu ematen dizkie. Puntu horiei esker, Gryffindor etxeak irabazten du azkenean txapelketa, eta eskola guztia batzen da berria ospatzeko. Ikasturtea bukatzen denean ikasleak haien etxera bueltatzen dira, Harry bere osaba-izebarekin bueltatzen da, baina ahaztezina izan den ikasturte bat bizi duela jakinik.

## *Egituraketa*

Eleberri hau egitura klasikoan oinarritzen da, hau da, hiru ataletan banatuta dagoela esan daiteke. Sarrera muggleen arteko munduan kokatua dago, eta arazoak eta konponbidea eskolan gertatzen dira, berriro ere muggleen mundura bueltatzeko bidaiarekin azkena emanez. Hasiera, muggleen arteko Harryren bizitza azaltzen du idazleak, eskolarako bidai hartu daiteke arazoaren sortzaile gisa, eta sorgin harriaren buruzko misterioa bihurtzen da istorioaren ardatza; harria desegiteak dakar istorioaren bukaera. Nahiz eta kapitulu desberdinetan banatuta egon liburua, kapituluak ez dira istorioaren atal bereziak; ibilbide bakar baten parte dira.

# Baliabideak

Harry Potter eta sorgin harria liburuak mezu handiko istorioa kontatzen du, fantasiako istorio baten bidez gazteen hainbat beldur eta arazo aurkezten batitu. Hasteko, gurasoen bihozgabetasuna eta anai arrebekiko lehiakortasuna azaltzen du, liburuaren hasieran bere osaba-izebarekin bizi denean. Aldi berean, gurasoen faltak sortzen duen estutasuna eta tristura azaltzen du baita, Harryren maitasun faltaren bidez, leku edo egoera berrietara egokitzeko beldurra; Harryk azitia dela jakiten duenean, adibidez.

Beste aldetik, Ingalaterran gauzaturiko Errealismo literarioaren eragina du, istorioa eguneroko tokietan gauzatzen baita (eskola, etxea...).

Istorio fantastikoa izan arren ez da errealitatetik guztiz aldentzen, pertsonaiak alegiazko mundu batean ez ditu kokatzen eta, benetako munduan baizik. Gainera, batzuetan, mundu magikoa eta benetako munduak bat egiten dute, liburuaren hasieran bezala, Harry jende ez magikoarekin bizitzen dela kontatzen duenean egileak.

Narratzaile orojakile baten bidez –gertakarietatik kanpo dagoen narratzailea–, eta modu lineal zorrotzean kontatzen da istorioa. Pertsonaien eta eszenatokien deskribapenak motzak izan arren oso zehatzak dira, sentimenduen deskribapenak, aldiz, sakonagoak dira. Harryren itxuraz, adibidez, gauza ezagueratsuenak aipatzen ditu idazleak, baina haren sentimenduen deskribapenak ugariagoak dira. Esan dezakegu, ez dela adierazten Harryren sudurraren forma, baina bai momentu bakoitzean dauzkan sentimenduak, bere ekintzetan eragin handia dutelako, eta itxura fisikoa ez delako hain garrantzitsua Rowling-entzat.

Hizkuntzaren aldetik, erregistro estandar batean dago kontatua istorioa, irakurle guztientzako ulergarria eginez. Baina, pertsonaietako baten hitz egite eran egiten du aldaketa bakarra, Hagridek hitz egiterakoan, euskara batutik aldentzen da, hizkuntza herrikoa –kasu honetan bizkaiera– erabiltzen baitu; ziur aski irakurleon artean, pertsona jatorra den itxura emateko, eta bereganako nolabaiteko maitasuna sortzeko.

# *Iritzia*

Harry Potter eta sorgin harria irakurle gazteentzako magia, fantasia eta misteriozko liburu bikaina da. Irakurle on eta txarrak harrapatzeko gai den eleberri hori, Harry Potter saileko lehena da eta beraz gure azti maitagarriaren istorioaren hasiera aurkezten digu. Lehenengo liburu honek fantasiako abentura ezin hobea eskaintzen du, ondo landutako istorio sakona. Ez da harritzekoa milaka irakurle izan dituen liburu honen arrakasta, irakurtzen bukatu bezain laster hurrengo liburuarekin hasteko gogo itzelak sortzen baititu, Harry eta bere lagunei gertatuko zaizkien abentura berrien zain uzten zaituen eleberria da.

Istorio eta trama interesgarria izateaz aparte, gazteek dituzten hainbat arazo erakusten dituen eleberria da, irakurleari istorioarekiko lotura handia eratuz. Liburuaren argumentua sinplea baina nahikoa da, eta istorioan zehar behin eta berriro agertuko diren pertsonai eta lekuen deskripzio bikainak egiten dira, nahiz eta laburrak izan, oso zehatzak baitira. Esan beharra dago, filma ikusi dutenentzat istorioak ez duela interesik galtzen, zehaztasun handiagoak eta abentura berriak agertzen direlako. Gainera, filmean aspergarriak ala sinpleak diruditen pertsonaiak askoz hobekak dira liburuan, irakurlearentzako erakargarriagoak bihurtuz. Liburuaren hasieran, Harry mundu magikoa ezagutzen ari den bitartean, nolabait irakurleari Harryren buruan sartzea lortzen du, hark bezala, mundu magiko hori lehenengo aldiz eta pixkanaka-pixkanaka ezagutzen.

Hainbat pasarte interesgarri dauzka istorioak, baina batzuk besteak baino askoz sakonagoak direla esan genezake. Adibidez, Harry hasieratik leialtasuna erakusten du; 74-75. orrialdeetan Harryk Draco Malfoy ezagutzen dueneko unea azaltzen du, Malfoyk Hagrid buruz egindako burlaren aurrean Harryk “Buru paregabea duela uste dut nik” esanez defendatzen duenean; edo berriro ere, 135. orrialdean, Malfoyn aurka baita, bere etxekide Neville defendatzen duenean. Aipagarria da baita 184. orrialdean, Harryren lehenengo eguberriak Hogwartsen nolakoak diren azaltzen duen bitartean, eguberri paregabeak direla Harryrentzat ikustaraziz, idazleak askotan benetako lagunak “familiakoak” bihurtzen direla azaltzen digula; eta azkenik, 188. orrialdeko atala oso hunkigarria da, Harryk ispilu magikoan bere gurasoak ikusten ditueneko atala.

# Bibliografia eta webgrafia

*Harry Potter eta sorgin harria*, J. K. Rowling. Elkar.

[http://es.wikipedia.org/wiki/Harry\\_Potter\\_y\\_la\\_piedra\\_filosofal#An.C3.A1lisis](http://es.wikipedia.org/wiki/Harry_Potter_y_la_piedra_filosofal#An.C3.A1lisis)

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Harry\\_Potter\\_eta\\_Sorgin\\_Harria](http://eu.wikipedia.org/wiki/Harry_Potter_eta_Sorgin_Harria)

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Hogwarts>

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Harry\\_Potter\\_\(pertsonaia\)](http://eu.wikipedia.org/wiki/Harry_Potter_(pertsonaia))

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Hermione\\_Granger](http://eu.wikipedia.org/wiki/Hermione_Granger)

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Ron\\_Weasley](http://eu.wikipedia.org/wiki/Ron_Weasley)

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Lord\\_Voldemort](http://eu.wikipedia.org/wiki/Lord_Voldemort)

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Albus\\_Dumbledore](http://eu.wikipedia.org/wiki/Albus_Dumbledore)

[http://eu.wikipedia.org/wiki/J.\\_K.\\_Rowling](http://eu.wikipedia.org/wiki/J._K._Rowling)

[http://es.wikipedia.org/wiki/J.\\_K.\\_Rowling](http://es.wikipedia.org/wiki/J._K._Rowling)

[http://es.harrypotter.wikia.com/wiki/Harry\\_Potter](http://es.harrypotter.wikia.com/wiki/Harry_Potter)